

## 7.GAIA

1 Sistema trifásico orekatu eta simetriko baten potentzia hauxe da:

- $P = U \cdot I \cdot \cos \varphi$  W
- $P = R \cdot I^2$  W
- $P = S \cdot \cos \varphi$  W
- Erantzun guztiak zuzenak dira.
- "a" eta "b" erantzunak baino ez dira zuzenak.

2 Neutroaren desplazamenduaren metodoa erabiltzen da:


- Hiru hariko sistema trifasiko desorekatu ebazteko.
- Izarrean konektatutako sistema trifasiko desorekatuak ebazteko.
- Sistema orekatuak ebazteko.
- "a" eta "b" erantzunak zuzenak dira.
- "b" eta "c" erantzunak zuzenak dira.

3 Bi wattmetroen bidezko potentzia erreaktiboaren "Q"-ren neurketa egin daiteke baldin eta:

- Sistema hiru harikoa bada.
- Korronteen sistema simetriko eta orekatua bada.
- Korronteen sistema tentsioen sistemaren sekuentzia berekoa bada.
- Sistemak "b" eta "c" baldintzak betetzen ditu.
- Sistemak "a", "b" eta "c" baldintzak bete beharko ditu.


4 Irudiko zirkuituari sistema trifasiko eta simetrikoa aplikatu zaio,  $W_2$ -ren irakurketa  $W_3$ -rena baino txikiagoa da, baieztatu daiteke:

- Sistema alderantzizko sekuentziakoa da.
- Karga induktiboa eta orekatua da.
- Potentzia aktiboa  $P = W_3 + W_2$  (W) da.
- Potentzia erreaktiboa  $Q = \sqrt{3}(W_3 - W_2)$  var da.
- Erantzun guztiak egia dira.



5 Potentzia erreaktiboa  $Q = \sqrt{3}W$  izango da, "a" eta "b" horrela konektatuz gero:

- "a" bornea 2. lineara, "b" bornea 0 lineara.
- "a" bornea 2. lineara, "b" bornea 3 lineara.
- "a" bornea 3. lineara, "b" bornea 1 lineara.
- "a" bornea 0. lineara, "b" bornea 3 lineara.
- "a" bornea 3. lineara, "b" bornea 2 lineara.



6 Hurrengo baieztapena egia edo gezurra diren adierazi.

- |   |     |
|---|-----|
| a) Sistema baten sekuentzia aldatzeko, fase bi trukatzearekin nahiko da.                        | E G |
| b) Sistema trifasiko batean, tentsio konposatuak edo lineakoak beti orekatuak dira.             | E G |
| c) Hiru hariko izar batean, faseko tentsioak lineakoak baino handiagoak izan daitezke.          | E G |
| d) Lineako korronteak hiru hariko sistema trifasiko batean ez dira zertan orekatuak izan behar. | E G |
| e) Lau hariko izar batean, neutroko korrontea fasekoak baino txikiagoa da beti.                 | E G |